



❖ ZINE KLUBA
`Ciudad de vida y muerte' gaur

Zine Klubaren barruan, *Ciudad de vida y muerte* pelikula emango dute gaur 21:30etan, Biterin. ||

Ereñotzuko Udazken Kulturala - Hitzaldia gaur - Jakoba Errekondo Zeraingo garapen teknikaria:

«Zeraingo politika aplikatu liteke Ereñotzun; hori bai, beti, Ereñotzutik abiatuta»

Zerain da eredu bat, esaten duena, herri txiki batek garatzeko zer egin dezakeen. Jakoba Errekondo usurbildarrak, Zeraingo garapen teknikariak, hitzaldia emango du gaur, Ereñotzun, 19:30etan.

«EREÑOTZUN indar bat badago, eta gogo bat. Hori da klabea ezer egin nahi duenarentzat. Nik nere aldetik gomendatuko nieke, lehenengo identitatea lantzeko, autoestima: zer dauka Ereñotzuk besteek ez daukatena?». Zeraingo politika beste herrietan ere aplikatu litekeela uste du Jakoba Errekondok; bai Ereñotzun, eta baita Hernanin ere. Funtsean, herriak erabaki behar du zer izan nahi duen, eta herritarrek parte hartzeko modu egokiak jarri. Hor erabakitzen dena, arduradunek bete egin behar dute.

Zerainen hala funtzionatzen dute, Jakoba Errekondok dioenez. Errekondo paisajista da, usurbildarra, eta 16 urte daramazki Zerainen lanean, garapen teknikari moduan. Gaur hitzaldia emango du Ereñotzun, 19:30etan: *Ereñotzuko Auzo Udala bizi berritzen, Zerain herria eredu.*

Irautetik bizitzera

«Zerainek irautea lortu zuen, eta orain irautetik bizitzera pasatzen ari da», dio Errekondok. Zerainen bizitzeko, zer behar du zeraindar batek? Haurtzaindegia, eskola, ludoteka, internet, gasa, errepideak, urzikinak kolektorera eramatea, garraio publikoa... Horiek guztiak lortu ditu Zerainek, eta elkarteak dauzka, museoak, eta ekintza kulturalak egiten ditu. Baina nola lortu du herri txiki batek hori guztia?

Zer eskaini dezake Zerainek?

Zerain Dezagun Fundazioak etorkizun ekonomikoa lan-



Jakoba Errekondo, Zerain Dezagun Fundazioko kidea.

tzen du, eta hor egiten du lan Jakoba Errekondok. Zerainek eskaini dezakeena hartzen dute oinarri: ondare naturala, ondare kulturala, eta lehenengo sektorea. Fundazioak 13 urte daramazki lanean, eta 34 lanpostu sortu ditu: lehenengo sektorean (artzantza, nekazaritza, sagardotegiak...), turismoa (nekazal turismoak, bisita gidatuak, pedagogia eta didaktika...), eta zerbitzuetan.

Klabea, Errekondoren ustez, da, enpresa txikiak izatea, eta bertakoak, ondarearekin lotuak. «Lurralde batek sortzen duena bertan gelditzea da klabea». Bestalde, finantziarioa kanpotik ekartzea behar-beharrezkoa dela dio herri txiki batentzat, dirulaguntza bidez, batez ere: «herrian diru gutxi dagoela-

ko. Aldundia, Eusko Jaur-larritza, Espainiako Gobernu, Europa, sektore pribatua...».

Zer utzi nahi diegu ondorengoei?

«Datozen belaunaldiak ezin ditu baldintzatu guk egiten dugunak. Hori da iraunkortasuna, sostenibilitatea, eta Zerainen kasuan, behar-beharrezkoa. Baina zeinek erabakitzen du hori?». Iraunkortasuna hitza oso maltzur erabiltzen da Errekondoren ustez, eta hori da politikoen maila oso kaxkarra delako. Zerainek, herriak erabakitzen du. Herri batzarrean 80 lagun inguru biltzen dira, eta hor erabakitzen dira, kontsentsuz, erronka nagusiak. Udal ordezkarien lana da, erabaki den hori, egitea. ||

ZERAIN

ZERAINGO DATU BATZUK

- 250 biztanle
- 5 Udal ordezkari
- Herri Batzarra (80 lagun inguru biltzen dira bertan)
- Kultur Etxea
- 34 lanpostu berri sortu dira azken 13 urteetan (baserriko produktuak, turismoa eta zerbitzuetan)

EKINTZA KUTURALAK

- XVI. Azoka Ekologikoa
- Endika Alustizaren omenezko XVII. bola txapelketa
- Kultur Astea
- Zaldi Lasterketa
- Arantzazura erromesaldia
- Tute eta mus txapelketak
- San Isidro eguneko herri bazkaria
- San Joan sua
- Mutiloara VII. jaitsiera
- 40 urtez gorako Dantza Txapelketa
- Pilota Txapelketa

ELKARTEAK

- Zerain Dezagun Fundazioa
- Oa kultur elkarte
- Liztormendi elkarte gastronomikoa
- Basarte guraso elkarte
- Ganaduzaleen elkarte
- Uharka abesbatza
- Kristau Elkarte

ZERBITZU ETA AZPIEGITURAK

- Medikua egunero
- Haurreskola
- Eskola
- Garraio publikoa
- Turismo bulegoa
- Internet
- Bertako produktuen denda
- Ostatuak
- Elkarte gastronomikoa
- Kultur Etxea: Ludoteka, liburutegia
- Frontoia
- Bolatokia
- Haurrentzako parkea

ONDAREA

- Larraondoko zerrategi hidraulikoa
- Aizpeako meategia,
- Monumentu Multzoa eta bertako Aizpitta Adieraztegia
- Herri museoa
- 1711ko kartzela
- San Blas ermita
- Andra Mari eliza
- Jauregia
- Aizkorri-Aratz parke naturala
- Herri kaskoko monumentu multzoa
- Zabalegi eta Arrolako hilerriak
- Ostatu etxea
- Segura-Zerain galtzada
- Olabide baserria

*Iturriak: www.zerain.com eta Argia Astekaria

❖ EREÑOTZU - Udazken Kulturala

Agirrereren ordeez, Colina ariko da bertsotan, bihar

Bihar bertso afaria izango da Ereñotzuko Ur-mia elkartearen eta Unai Agirrereren ordeez, Sus-trai Colina ariko da bertsotan Maialen Lujanbiorekin. Txartelak salgai daude Ur-mian eta Txili tabeman, 20 euroan. Baita 625 703 656 telefonoan ere. ||

❖ ANTZERKIA

'Hau natura! Aire, lurra eta ura' haurrentzat emanaldia, etzi

Haurrentzako antzerkia izango da larunbatean. Bihar txotxongilo taldearen *Hau natura! Aire, lurra eta ura* antzerkia izango da ikusgai 11:00etan, Biterin. Sarrerak: 2,50 euro. ||

❖ OMENALDIA

Endika Zubeldia eta Severino Vazquezi omenaldia, gaur

Hernaniko Musika Bandako bi kide omenduko dituzte gaur 19:15etan, Milagrosan. Endika Zubeldia Iradi 25 urtez izan da bandako kidea, eta Severino Vazquez Iglesias 50 urtez. ||

❖ NATZA

XXIgarren mendeko herrigintzari buruz, hitzaldia gaur

Udal ezkertiar eta aurrerakoi batek egin beharko lukeenari buruz ariko dira gaur J.K. Alduntzin, J.M. Sanchez eta M. Beitia-larrangoitia, gaur. 19:30etan, Udaleko Areto Nagusian. ||

leiholux
LEIHOAK, PERTSIANAK ETA ITXITURAK.

"RENOVE" PLANA

Zure etxeko leihoak berritzeko **DIRU LAGUNTZAK.**
Ez utzi aukera pasatzen !!

www.leiholux.net
943 29 09 09

Pol. Belartza
Gurutzezi, 15 - Pab. A-3
20018 Donostia

ZATOZ !!

Allianz (III)
ASEGURUAK

- bizitza -
- istripuak -
- ibilgailuak -
- etxeak -
- komertzioak -
- enpresak -
- ardura zibila -
- finantz aseguruak -
- inbertsioak -

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

ROYMA
ATEAK, LEIHOAK ETA PERTSIANAK

DISTRIBUIDORE OFIZIALA **FINSTRAL**

"RENOVE" PLANA
desk. % 22-raino !!

GALDETU KONPROMEZURIK GABE

ALMAZENA: Pol. EZIAGO, Pab.5 / lok.10 - 20120 HERNANI
ERAKUSKETA: Pº IZTIETA, 5 - ERRENTERIA. Tel. 943 100 577

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Eguzte:** **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● **Gauze:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Zaparradak botako ditu noiz behinka, eta trumoiak jo deza-ke, baina eguraldiak hobera egingo du. Termometroetan ez da aldaketarik izango.

BIHAR Hego haizea protagonista izango da gaur. Haizea zakar ibiliko da, ufada gogorrek. Zeruan lainoak izango dira eta azken orduan euria egingo du. Tenperaturak gora egingo du. (euskaime)

HERNANIKO KRONIKAK 10 URTE

ACTko himnoa, Kronikaren hamargarren urteurrenean

Kantuz, Ozenki eta Goiz Eguzkiko abesbatzen emanaldia izango da bihar Milagrosan, arratsaldeko 20:00etan hasita.

HERNANIKO Kronikak hamar urte bete zituen ekainaren 23an, eta urte osoan zehar hainbat ekitaldi ari da egiten hernaniar guztiekin ospatzeko asmotan.

Biharkoan Hernaniko hiru abesbatzen kontzertua antolatu du, Milagrosan. Kantuz, Ozenki eta Goiz Eguzkiko abesbatzen emanaldia izango da, berezitasun batekin. Ozenki eta Kantuz abesbatzako kideek elkarrekin, ACT arraun himnoa abestuko dute, Imanol Kamio ereñotzuarrak egina. Abesbatzen emanaldia arra-

tsaldeko 20:00etan izango da.

Urte osoan zehar, ospakizunak

Ospakizunekin martxoan hasi zen, Larre-Gain sagardotegian antolatutako afariarekin. Ehundik gora lagun bildu ziren, elkarrekin afaldu, eta ondorengo bertso saioaz eta Esne Beltzaren kontzertuaz gozatzeko.

Urteurreneko jai nagusia ekainean egin zen: egun guztiko festa. Goizean Mendiriz Mendi elkartearrekin mendi buelta egin zuten mendia

gustoko duten herritarrek. Ondoren, Hernaniko pelotarien arteko pelota partiduak jokatu ziren Tilosetan. Eta umeek ere izan zuten bere txokoa, bai goizez, eta baita arratsalde ere: goizean joko eta tailerretan ibili ziren, eta arratsaldean, Gazte Txokoak antolatutako ekintzetan hartu zuten parte. Ondoren, kontzertuak izan ziren, Tilosetan baita ere; Oi dek oi! taldea, Ania bakarlarria eta Laiotz taldea arduratu ziren festari amaiera borobila emateaz. ||

'ANFITRIONES'-FORMAKUNTZA PROGRAMA

Bezeroekiko harremanak hobetzeko, eta lehiakortasuna indartzeko, formakuntza programa jarri du martxan Eusko Jaurlaritzak

Programak 'Anfitriones' izena du eta Hernanin hiru saio izango dira: abenduaren 2, 15 eta 16an. Guztiak Biteri kultur etxean.

EUSKO JAURLARITZAK *Anfitriones* izeneko formakuntza programa jarri du martxan, negozio-enpresen jabeentzat, erdi mailako arduradunentzat, eta bezeroekin harremanetan dauden langileentzat. Basquetour turismoaren euskal agentziarekin elkarlanean antolatu du formakuntza programa, eta bi helburu ditu: batetik, bezeroekiko harremana hobetzea, hau da, kalitatea

hobetzea; eta bestetik, turismo arloan lehiakortasuna indartzea.

Ikastaroak euskalde osoan barrena emango dituzte, eta aurreneko saioa gaur izango dute, Andoainen. Hernanira abenduan etorriko dira.

Hiru saio abenduan, guztiak Biteri kultur etxean Hernaniko saioak abenduaren 2, 15 eta 16an izango dira, hirurak Biteri kultur etxean,

15:30etatik 19:30etara. Abenduaren 2an, aurreneko saioan, era atsegin batean harrera egiteko moduak erakutsiko dituzte. Bigarren saioan talde lanaren garrantziari buruz ariko dira. Eta azkenik, hirugarren saioan jomuga turistikoaren zerbitzuei buruz hitz egingo dute, eta baliabide turistikoak ere gomentatuko dituzte. Saioak gaztelaraz izango dira, eta doan. Argibide gehiago 943 33 70 28-943 59 04 09 telefonoetan. ||

MENDIRIZ MENDI-MENDIZALE ASTEA

Dolomitak eta Afrika hegoaldeko argazkien emanaldia gaur, Biterin

Mendiriz Mendi elkarteak antolatutako Mendizale Astea azken txanpan da, eta gaurkoan herritarrek egindako proiektzioak ikusteko aukera izango da. Pilar Azpeitiak *Dolomitak 2010* izeneko proiektzioa emango du, eta Aitor Dorronsorok *Afrika Hegoaldea-Bizikletaren iparreak* proiektzioa. Ekitaldia Biteri kultur etxean izango da, 19:30etan. ||

MUSIKA

Turlach taldeak Kixkalen joko du gaur

Turlach musika taldearen emanaldia izango da, gaur, gauko 22:00etan, Kixkalen. Musika irlandesarekin gozatzeko aukera. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† IGNACIO AZPIOLEA OLARRA

JAUNA
'PITTIKAR'

Atzo hil zen, 86 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Emaztea: Maria Liceaga; seme-alabak: Guillermo (+), Ana eta Joxe M^a Genua, Milagros eta Jose Ignacio Ochotorena, M^a Engracia (+), Jose Antonio, Graxi eta Juan M^a Ugalde; bilobak: Ane eta Juanjo, Leire eta Iñaki, Maialen eta Ioritz, Elixabet eta Andoni, Iñaki, Axier eta Maider, eta Jon; birlobak: Intza eta Aimar; anai-arrebak: Joxe Ramon, Maritxu (+), Inaxi (+), Joakin (+), Antonio (+), eta M^a Teresa; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2010eko azaroaren 18an

Helbidea: Santa Barbara auzoa, 29-1. esk.
OHARRA: Gorputza HERNANIKO VASCONGADA TANATORIOAN (Orkolaga kalea) egingo da gaur, eguerdikio 12:00ak arte.

IRAGARKI MERKEAK

- Motoa salgai. T-MAX black max, oso ondo zaindua (5500€). Deitu: 630 432 781.
- Pisua alokagai: Antzolian (residentziala), 2 logela, saloi-komedorea, sukaldia, komuna (kalefakzioa) eta garaje itxia. Hutsik. 800€ (abala). Deitu: 600 60 97 54
- Ingelesko eskola partikularrak ematen ditugu. Ingeles filologoa eta tituludun natiboa. Maila guztiak, Business English, elkarrizketa... Deitu: 652 704 995 / 639 371 824
- Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi handia, sukaldia. Behean soziedadea eta ganbarra logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kotxe).Prezio negoziagarria eta erreztasunak ordainketan. Deitu: 629 682 827.
- Kotxea salgai, Peugeot 206a. 9 urte ditu (2.000 euro). Deitu 943 55 04 79.
- Altzariak salgai: 2 ohe (90cm), mesilla, sinfonier eta armairua / 2 butaka, 2 armairu eta "tresillua" (Hartza, rustikoa), Merke eta egoera onean (1500€). Deitu: 649 006 061.
- Audi TT FSI salgai (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). Oso egoera onean, beti garajejan. 26.500€. Deitu: 658 058 330.
- Pisu polita salgai Karabalen. 2 logela, dena kanpora, guztiz berritua (246.000€). Deitu: 658 712 923.
- Pixua salgai erdialdean eta toki lasaiean. 2 gela dauzka eta denak kanpoaldera ematen du. Prezioa: 32.000.000ptza. Deitu: 619 813 357
- Duplex-a salgai Lizeaga kalean, oso egoera onean, argitsua, 120m², 3 logela, 2 komun, trasteroa. 390.000€ Deitu: 609 823 472
- ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitate, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- Enara Goikoetxea. Terapija energetikoak, Kristaloterapija, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)
- YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzietza 2, behea. Tel. 943 55 32 78.
- Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
- Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapija... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

AKELENEA
Erretea - XIX Mendeko Sagardotegian

Koldo eta Ana

Eguneko menuak
Kudrilako bazkariak
Karta

Egunero zabalik

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

Argitarapen honen laguntzaile:

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

TRIPA BETE NAHI?

taberna tripanzi

PINTROAK, RAZIOAK, ENTSELADAK, PLATER, BONBINTUAK
ZATUZ DASTATZERA!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI • 943 555 724